

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Mendiola Ordorika

*Gernika-Lumo,
Bizkaia (1942)*

Aurkibidea



Biografia



Lumon jaioa, Balatika auzoan. Aita bertakoa zuen eta ama Lumoko beste baserri batekoa. Bost senidetan hirugarrena, Balatikan bertan ibili zen eskolan eta ondoren Lumon. 10 urterekin Gernikako okindegi batean ibili zen lanean, bizikletarekin ogia partitzen. 11 urterekin Bilbora joan zen Somera auzoko Moirgan tabernajatetxean zerbitzari lana egitera (bere emaztea izango zena ezagutuko zuen bertan: Josefina Astondoa). 18 urterekin soldadutza egin zuen eta 22rekin AEBetara joan zen, artzain (izeba bat zuen bertan: Emeteri Jaio). Grand View herrira (Idaho) joan zen, Wood Creek konpañiara. Urtebete "campero" eta urtebete "artzain". Lau urteren ostean Euskal Herrira bueltatu eta ezkondu egin zen. Basilio Aldekoaren arrantxora joan ziren bizitzera. Hiru seme-alaba izan zituzten eta hirurek ikasi zuten euskaraz. Erretiroa hartu zutenean Boisera joan ziren bizitzera (han eskola bat harbitzen egin zuen lana). Harri jasotzen eta pilotan ibili izan da.

Zintak

GER-140

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-11
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com